

# Aita kartzelan daukan umeari buruzko ipuina egin du Castillo Suarezek

Altsasuarraren 'Nemo kapitainaren azken bidaia' eta Arrate Egañaren 'Printzesa puzkertia'-ren edizio berritua atera ditu Erein argitaletxeak

■ F. I.

**DONOSTIA.** Erein etxeak beste bi liburu plazaratu ditu, haurrentzako bere Auskalo bildumaren barruan: Castillo Suarezren 'Nemo kapitainaren

ren azken bidaia' eta Arrate Egañaren 'Printzesa puzkertia'.

Castillo Suarez (Altsasu, 1976) «karanbolaz» hasi zen haurrentzako lanean. 2009an haur literatura-ko Lizardi Saria irabazi zuen 'Ebelina Mandarina'-ri esker. Huraxe zuen arlo horretako lehen lana, eta ordu-rako lauzpabost olerki-biburu zitu-  
tuen publikatuak.

Oraingo 'Nemo kapitainaren azken bidaia' honek sorrera berezia dauka. Idazleak honela azaldu du: «Ikastetxe askotara joaten naiz lite-

raturaz hitz egitera. Behin, Altsasu-ko batera joan eta sei urteko ume batek, Xabier Beaumontek, esan zidan aita Picasenten zegoela. Nik badakit han kartzela dagoela, esan nion ea preso al zegoen, eta baietz. Hala xe, horrelako egoera bat bizi duen haur bati buruzko ipuina idaztea erabaki nuen. Nafarroan 90 haur daude egoera horretan, eta Euskal Herri osoan 300 bat omen dira».

Liburuko protagonista Nadia izeneko neskatila da. Aita kartzelan dauka, baina berak bestela irudikatzen du; iruditzen zaio Nemo kapitaina dela eta 'Nautilus' urpekarian dagoela, liburuak irakurri eta irakurri. Aitari bisita egitera doazenean, batzuetan ama-alabak joaten dira, etxeko autoan; beste batzuetan furgoneta batean, antzera bizi diren beste guraso eta haur batzuekin.

«Hiru urte kostatu zait ipuina burutzea, gai delikatua baita. Mila buel-



**NEMO**  
KAPITAINAREN  
BIDAIA  
CASTILLO SUAREZ

**Argitaletxea:** Erein.  
**Orrialdeak:** 61.  
**Prezioa:** 7 euro.



**PRINTZESA**  
PUZKERTIA  
ARRATE EGAÑA

**Generoa:** Ipuina.  
**Argitaletxea:** Erein.  
**Orrialdeak:** 71.  
**Prezioa:** 9,50 euro.

ta eman dizkiot. Gero Xabier Beaumontengana joan nintzenean liburu erakustera, ez zen akordatzen», aitortu du idazleak.

Aldiz, Arrate Egañaren 'Printzesa puzkertia' ez da liburu berria; 1998an Bapore Saria irabazi zuen, eta argitaletxe antolatzaileak, SM delakoak,

publikatu zuen. Hain zuzen ere huraxe izan zuen euskarazko lehen literatur lana. Oraingo ediziorako berri-  
datzi egin du, arau ortografiko berriak aintzat hartuz. «Testua hobetu egin da, pozik nago», adierazi du Erreterian jaio eta aspalditik Bermeon bizi den idazleak.

«Ororen gainean, nahi nuen liburu dibertigarria izatea, eta bide batez eredugarria», esan du Egañak. Istorioko protagonista nagusia Logurapeko erresumako printzesa bat da. Neska ederra da, baina badu arazo txiki bat sabelean eta, ondorioz, puzkerrak etengabe botatzen ditu.

«Pertsonaiak eta istorioko beste osagai batzuk arketipikoak dira –esan du Egañak–: printzesa bat, printze bat, gaztelua, baso iluna, dragoia, sorginak... Proba batzuk gaintitu beharko ditu printzesak bere arazo hori konpondu nahi badu. Superazio-istorio bat, azken batean».